



JASANGARRITASUN GILTZARRIAK EUSKADIN

2011eko Maiatza

EkoEuskadi 2020ren webgunea: www.ecoeuskadi2020.net

Eusko Jaurlaritza


EkoEuskadi 2020ko Idazkaritza Teknikoa. Ihobe sozietate publikoa

Sarrera

EkoEuskadi 2020, garapen jasangarriko estrategia lantzeko Eusko Jaurlaritzak gidatzen duen ekimena, honako gai hauen zenbait alderdiri buruz gogoeta egiteko helburuarekin sortu da: oparotasun ekonomikoa, gizarte ekitatea eta kohesioa eta ingurumenaren zaintza, jomuga 2020. urtean jarrita.

Prozesu honetako lehen osagai moduan zenbait oinarrizko dokumentu prestatu dira: *Eszenatokia 2030*, *Egoeraren diagnostikoa*, *9 erronken proposamena*; ondoren, dokumentu hauen eztabaida eragile ekonomiko, instituzional eta gizarte eragile interesdunei zabaldu zaie. Eztabaida honen emaitzekin zenbait ondorio eta gomendio atera dira, aipatutako dokumentuekin batera, *Jasangarritasun giltzarriak Euskadin* izeneko txosten honen oinarri direnak. Dokumentu horiek guztiak www.EkoEuskadi2020.net web orrian eskuragarri daude, **dokumentu giltzarriak** atalean.

Jarraitutako prozesua hurrengo eskemak islatzen du.



Euskadiko sistema sozioekonomikoaren **jasangarritasunaren giltzarriak** aztertu dira, bilakaeraren joerak edo jarraibideak adierazten dituztelako, eta horiek beren eboluzio naturalari eusten badiote, sistemaren haustura (globala, ez lokala) ekar dezaketelako:

- Gure lehiatzeko gaitasuna arriskuan jartzen duten, merkatutik kanpo utz gaitzaketelako (eta gure lanpostuak iraungaitz bihur ditzaketelako), erronkak jasotzen dituzte, edo
- gizarte bezala gure nortasuna eta bake soziala arriskuan jartzen duten erronkak, edo
- gure seme-alabei utziko dizkiegun munduko baliabideak agortzea eragin dezaketen erronkak, edo
- gure bizi kalitatea arriskuan jartzen dute eta suntsitu ere egin dezaketen eta ondorioz, ongizate sistema garestitzen duten edo hori osatzen duten zerbitzuak murrizten dituzten erronkak, edo
- gure gizartearen barnean edo beste herrialdeekin gatazkak sorrarazten dituzten erronkak.

Zalantzarik gabe, fenomeno konplexuak dira, eta elkarren artean lotuta daude. Baina erronkak identifikatzean gauzen errora jotzen dugu, azpian dagoen elementu eragilerara, ez hurbileko edo azaleko seinaleetara. Aldi berean, fenomeno edo prozesu bat dela esan dezakegu eta prozesu horri aurre egin behar diogula edo aurre egin diezaiokegula. Bestela esanda, erronka hauei erantzutea posible da, irtenbide alternatiboak bila daitezke minimizatzeko edo ahalik eta hoberen egokitzeko.

Diagnostikoan edo parte-hartze jardunaldietan egindako ekarpenak laburbilduta, ondoriozta daiteke gure sistemak hiru arrisku nagusiri egin behar diela aurre. Horiei egoki erantzun ezean, orain arte nahiko arrakastarekin funtzionatu duen ongizate sistema agortuko zaigu, pixkanaka baina nahitaez:

- Lehenengo arriskuak **baliabide urriak** (energia, bestelako lehengaiak, elikagaiak, ura) agortzearekin lotuta dago, **gero eta** herrialde gehiagok eskatzen dituztelako munduko merkatuetan. Horrek, mundu ireki eta **globalizatu** batean, gure enpresen **lehiakortasuna**ren oinarriak berriro zehaztera behartzen gaitu.

- Bigarrena indarrean dagoen energia ereduari estuki lotuta dago. **Aldaketa klimatikoa** da eta hori arintzeko energia fosiletan oinarritzen den energia ereduaren errotik aldatu behar da. Ondorioak, batez ere, 2020. urtetik aurrera nabaritu dira baina neurriak oraintxe bertan hartu behar dira. Dena dela, ondorio batzuk dagoeneko saihestezinak dira eta ondorio horietara moldatu beharko gara (nekazaritzan, kostaldeko azpiegituratan, etab.).
- Hirugarrenak **gure bilakaera demografikoarekin** dauka lotura. Bilakaera horrek biztanle kopuruaren geldialdira garamatza eta litekeena da 2020. urtetik aurrera EAEko biztanle kopurua txikitzea. Eta, nahiz eta hazkunde demografiko globalaren geldialdia bat datorren hazkunde materialaren aukerak mugatuak izatearekin, horrek eragin nabarmena du belaunaldien arteko erlazioan, bi aldaketa hauen arabera:
 - **Jaiotza-tasa** txikiagotzen den neurrian, gerora ekoizpen sisteman sartuko den biztanleria aktiboaren kopurua ere jaitsi egingo da.
 - **Bizi itxaropena** handitu ahala, adineko biztanle kopurua ere handitu egiten da eta gizarte eskariak eta gizarte beharrak aldatu egiten dira, biztanleria aktibo eta ez aktiboaren arteko gaur egungo erlazioa nabarmen aldatzeaz gain.

Arrisku hauek adierazten dute gure ekonomiaren oinarriak *berregituratu* beharko ditugula, erabat aldatutako **faktore geostrategikoak** dituen mundu mailako egoera batean. Izan ere, munduko ekonomian gure inguruetik urrun dauden herrialde bultzatzaile berriak agertu dira eta horrek *Mendebaldeak* orain arte izan duen posizio hegemonikoa aldatzen du.

Erronka hauek identifikatzean gure ekoizpen moduak eta bizimoduak aldatu behar ditugula eta inguruaren aukeretara egokitu behar ditugula, beti egokitu izan diren bezala, onartu behar dugu. Baina, era berean, iragartzen diren aldaketak aukera berrien iturri dira. Baina orain mezuaren tonua beste bat da: Gure aukerak ez dira inola ere mugagabeak. Alderantziz, munduaren mugak lehen baino argiago ikusiko ditugu orain eta muga horien barruan aurkitu behar ditugu aukerak. Beraz, ideia berriek fisikoki egonkorra izango den gizartea, hobekuntza kualitatiboak etengabe bilatzen dituen, irudikatzen eramaten gaituzte ideia berriek, hazkunde kuantitatibo etengabearen ikuspegiaren orde. **Gutxiagorekin gehiago egitea.**

Jasangarritasun giltzarriak Euskadin

Ondoren, eta egindako prozesu guztiaren emaitza moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen, ingurumen eta gizarte modeloaren jasangarritasunaren 8 gakoak zerrendatzen dira:

Jasangarritasun giltzarriak Euskadin


1. Baliabide natural urriak eta agortzeak
2. Mendekotasun energetikoa eta aldaketa klimatikoa
3. Lehiakortasuna globalizatzea.
4. Aldaketa demografiko sakonak
5. Belaunaldien txandakatze desorekatua
6. Aldatzen ari den balioen sistemaren hauskortasuna
7. Mugikortasuna eta garraio iraungaitza
8. Nazioarteko garapen desberdina

Hurrengo orrialdeetan jasangarritasunaren gako hauetako bakoitzaren alderdi nagusiak biltzen dira. Gako hauen ikuspegi osoa edukitzeko, *2020. urtean Euskadi jasangarria izateko diagnostikoa* dokumentua ezagutzea gomendatzen da, 2011ko urtarrilekoa (laburpen exekutiboa).

1. Baliabide natural urriak eta agortzeak

Gure ekoizpen sistemak mendekotasun handia du EAEn ez dauden lehengaiekiko eta baliabide naturalekiko¹, elikagaiak barne. Mendekotasun hau larriagotu egiten da gizarte modeloak kontsumoaren zurrunbiloa bultzatzen duelako. Horretan, iraupen handiko produktuen balio-bizitza laburtu egiten da merkatua sustatzeko, eta hondakinen sorrerarekin eta tratamenduarekin lotuta dagoen arazo larria eragiten du.

Prozesu globalak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoak eragiteko ahalmena mugatu du. Hortaz, ekintzak mendekotasuna txikitzen bideratzen dira, ekoizpenaren eraginkortasun globala hobetzeko, **ekodiseinua, birziklapena eta berrerabilpenaren** bidez, baliabideen ekoizkortasun maila altuagoak erdiesteko.



Fuente: Perfil Ambiental de Euskadi 2009. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, Euzkadi y Euzko Legebiltzariak eta Euzko Foru Batzarra.

Garapenaren aldeko munduko lasterketak, mendebaldeko herrialdeek jarraitutako ildo bertsutik, prozesu hori indartzen du, are gehiago mundu mailako hazkundearen motor bihurtu diren Txina, India eta Brasil bezalako herrialde handiek parte hartzen dutenetik. Honek, lehiakortasuna dela medio, jarduera industrial tradizional asko baztertzea ekar dezake.

¹ Haien artean, funtsezkoak dira erregai fosilak (petrolio eta gas naturala batez ere). Erregai hauen berriazko izaera eta klima aldaketan duten eragina direla eta, bereizirik aztertzea merezi dute.

Murrizketa horri aurre egiteko, berrikuntza ekologiko edo ekoberrikuntza behar da, produkzio jarduera ahal den gehien "desmaterializatzeko" lagundu dezan eta, hartara, zerbitzuetan eta ezagutzan oinarritutako jardueren protagonismo handiagoa izango dute.

Elikagaiekiko mendekotasuna gero eta handiagoa den heinean, lehen sektoreak gero eta garrantzia gutxiago du Euskadiko ekonomian, nahiz eta ezinbestekoa den natur ingurunearen kudeaketa eta kontserbazioa era egokian egiteko.

Bestalde, lurzorua baliabide naturala oso modu intentsiboan erabiltzea ekarri du ekoizpen-eredu horrek. Hiri-okupazioaren inpaktuak pairatu dituzte ingurumenak, paisaiak eta biodibertsitateak. Hala ere, gure bizi-kalitatea biodibertsitatearen mende dago, eta hori lurrari lotuta dago ezinbestean. Izan ere, habitaten aldaketa eta eraldaketa da lurzorua pobretzearen eta desagertzearen arrazoi nagusia. Nahitaezkoa da balio natural handia duen lurraldea gordetzeko ahalegin handia egitea, eta horko balio ekologikoak eta paisaia-baliabideak babestea.

2. Mendekotasun energetikoa eta klima aldaketa

*Jatorri fosila duten erregaietan oinarritutako energia eredia agortze naturalera heltzen ari da, mundua gehienezko ekoizpenera iritsi baita edo iristear baitago. Gainera, erregimen ezegonkorak edo demokratikoki ahulak diren herrialde gutxi batzuetan kontzentratzen dira eta horrek izugarriko arazo geopolitikoak sortzen ditu. Bestalde, industrian, garraioan eta etxebizitzetan erregaiak erretzean aireratzen den CO₂-ak eragin nabaria du **klima aldaketaren**² azkartzean mundu osoan, atmosfera neutralizatzeko gaitasuna gaintzen delako.*


Indarrean dagoen energia eredia agortzeko aukerak oso **ahul** bilakatzen du gure ekoizpen sistema (eta, oro har, gure bizimodua), energia fosilen (petrolio, gas naturala) mendekoa delako neurri handi batean. Munduko lehiak nazioarteko merkatuetako prezioak

² CO₂ berotegi efektuko gasak izenez ezagutzen direnen artean nagusia da. Talde horretan beste isuri batzuk ere badaude, industriaren ekoizpen prozesuetan, nekazaritzan eta hiri hondakinen deskonposizioan sortzen direnak.

handitzen ditu. Egoera dela eta, atzeraldietan soilik eteten da joera hori, baina susperraldietan berriro ere handitu egingo dira.

Aurreko urteetan ezarritako politikak, energia iturriak ordezkatzeari eta eraginkortasun energetikoari buruzkoak, eta ekoizpen egituraren aldaketak energiaren kontsumoaren *hazkundera geldiarazi* dute. Hala, energia kontsumoa BPGrekiko duen erlazioa nahiko bereizi da, intentsitate energetikoa txikitu egin delako sektore agregatu handi guztietan (industria, zerbitzuak, garraioa, lehen sektorea), etxebizitzetan izan ezik. Bestalde, petrolioak energia primarioaren iturri nagusia izateari utzi dio; orain gas naturala da.

Baina Euskal Autonomia Erkidegoak ez dauka berezko baliabide garrantzitsurik. Energia iturri berriztagarriak azken kontsumoaren %5,9 besterik ez dira. Biomasaren ustiapenetik, energia hidroelektrikoatik eta, duela gutxiagotik, energia eolikotik eta eguzki energiatik ateratzen da. Bitartean, kontsumo osoak handitzen jarraitu du (egungo egoeran, krisialdiarengatik, jaitsi egin bada ere) eta ia 8 milioi petrolio baliokide tonakoa da.




Egoera honek berrikuntza maila eta eraginkortasun energetiko maila askoz ere altuagoak eskatzen ditu, orain artekoarekin alderatuta, honako helburu hauek lortzeko: (i) kontsumoa murriztea; (ii) energia berriztagarrien eta alternatiboen sorrera eta erabilera sustatzea; eta (iii) karbonorik gabeko ekoizpen sistema alternatibo bat sortzea, bereziki, garraio sektorean eraginez.

Energia eredia ordezkatzek eta karbono gutxiko ekonomia lortzek klima aldaketaren azkartzeari aurre egiteko ere balioko dute, BEGen isuriak arinduko dituzte eta.

Aztertutako klima ereduen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusi da tenperaturak igoko direla (1 °C eta 3 °C artean XXI. mende bukaerarako) prezipitazio aldakorrakoak eta itsasoaren maila handiagoa izango direla (0,5-1 metro artean EAEko itsasertzean; beraz, ekialdeko hondartzen % 40 desagertuko lirateke) eta horiek eragina izango dute ur gezaren erabilgarritasunean eta kalitatean, kostaldeko ekosistemetan eta itsasertzeko kokalekuetan eta azpiegituretan.

Klima aldaketaren zati bat saihestezina da. Nahiz eta EAE ez dagoen lurralde kaltetueneren artean, ondorioetara egokitzeko neurriak hartu beharko ditu (uholdeak, meteorologia aldakorra, hondamendi naturalak sarriago, etab.) kostaldeko azpiegiturek sendotuz eta natur ingurunea zehaztasun handiagoarekin kudeatuz lurralde-antolamendutik eta plangintzatik.

Hondamendi naturalak Europan 1980tik 2009ra



Egokitzapenaren alderdi batzuk luze joango diren arren, murrizketari berehala ekin behar zaio, nazioarteko konpromisoen berrespenarekin.

3. Lehiakortasuna globalizatzea


EAEk lehiatzeko eta lehiakortasuna bermatzeko beharra du, egoera gero eta globalizatuagoa delako. Horretarako, aldaketa teknologiko azkarrak, nazioarteko presentzia indartua eta jasangarritasun irizpideen arabera abantaila lehiakor berria beharko ditu.

Ekoizpenaren espezializazioa dela eta, Euskadiko ekonomia kanpoko merkatuen mendean dago. Horregatik, lehiatzeko ahalmena (ekoizkortasuna) eta berrikuntza gaitasuna bermatu behar ditu beti.

Bestalde, azpiegituren garapenak eta informazio eta komunikazio teknologietan oinarritzen den konektibitateak negozio aldeak txikitzen dituzte baina distantzia fisikoak deuseztatu eta enpresen nahiz herrialdeen arteko nazioarteko lehia areagotu ditzakete.

Garapen zientifiko eta teknologikoak aurrerapen handiak eta aukera berriak (produktu berriak, material berriak, zerbitzu berriak...) eragiten dituzte eta lehen aipatutako faktoreekin batera, aldaketen erritmoak azkartzen dituzte; hori dela eta, moldaera eta berrikuntza beharrezkoak dira.

EAEko esportazioak munduan egiten direnen aldean, (1983, 1993 eta 2007) (1983 = 100)



lehengaien eskaria igo egin da eta faktoreen salneurri erlatiboak eta gure lehiakortasunaren baldintzak asko aldatu dira. Hala, globalizazioak **ahul** bihurtzen gaitu ekoizpenaren lekualdaketaren aurrean eta gure lehiarako abantailak egokitzera behartzen gaitu. Abantaila hauen oinarriak honako hauek izan beharko dira: ezagutza eta konektibitatea, eta gure enpresak eta erakundeak munduko sare eta kateetan askoz ere irmoago txertatzea. Herrialde txikia gara eta hazkunde globalaren motorretatik gero eta urrunago gaude *erlatiboki*.

Halaber, ekonomiaren globalizazioak aukera berriak ekartzen dizkigu (eskaera zabaltzen da, ez eskaintza bakarrik) oinarri berrien gainean. Gure produktuak munduan lehiakorrek ziren zenbait sektoretan, eta horrela izaten jarraitzeko birdefinitu egin behar dira. Premiazkoa da produktu berriak garatzea, teknologia berriak sartzeta eta negozio eredu berriak diseinatzea jasangarritasunaren irizpideekin: ezin dugu gauza berberak egiten jarraitu.

4. Mugikortasuna eta garraio iraungaitza

Ibilgailu pribatuen mugikortasunaren hazkundera eta errepide bidezko salgaien garraioarena, EAEn abiapuntua eta helmuga dutenak nahiz hemendik igarotzen diren nazioarteko garraioak, erronka argia dira. Alde batetik, garraioa BPGtik benetan banatzea lortu nahi da eta bestetik, ingurumen aldetik jasangarriagoak diren garraio bideak sustatu nahi dira, erregai fosilenganako mendekotasuna gutxitzeko.

Mugikortasun jasangarria funtsezko pieza da jasangarritasunerako estrategia guztietan:

- ekoizpenaren lehiakortasunean duen eragin ekonomikoarengatik (zerbitzuaren kostua);
- ingurumenean duen eraginagatik, garraioak lurzoru asko eta jatorri fosileko erregai asko kontsumitzen dituelako (energia kontsumo osoaren % 34, baina faktura energetikoaren % 47) eta, beraz, berotegi efektuko gas ugari ez ezik (isurien % 23), bestelako gas eta partikula kutsatzaileak ere aireratzen dituelako; eta
- kanpo kostuengatik (besteak beste, istripuak, estresa, denboraren kontsumoa eta zarata dira nabarmenenak).

Geroz eta handiagoa den internazionalizazioari lotuta, garraioaren bolumena handitzen ari da, baina hazkundera hori ezin izan da BPGtik bereizi, ez EAEn, ezta EB27 osoan ere. Garraio moduei dagokienez, errepidea nabarmen nagusitzen da salgaien garraioan (osoaren %77); trenez, aldiz, % 3 besterik ez da garrantiatzen. Halere, itsasoak (% 20) garrantzi handia du nazioarteko garraioetan.

Energia-intentsitate garraioan. Euskadiko BPG osoaren unitateko tep-etan neurtutako energia kontsumoan. 2009koa baino hiru puntu hobea da





2006an egindako estimazioa baten arabera, errepidez garraiatzen diren salgaien % 20 pasoko garraioa da.

Pertsonen joan-etorriei dagokienez, 2003 eta 2007 artean, eguneroko joan-etorriak % 11 hazi ziren. Garraio kolektiboaren erabilera handitu egin da (% 1,6ko igoera), baina ibilgailu pribatua baino gutxiago (% 3,6); oinezkoen joan-etorriak, ordea, % 4,6 jaitسي dira. Autoa geroz eta gehiago erabiltzen da motorizazio indizearen gorakadak islatzen duen bezala: 2000 eta 2008 artean auto kopurua 391tik 435era hazi da mila biztanleko.

Hiriko garraioari dagokionean, garraio kolektiboak (metroa, trena eta autobusak) aurrerapenak lortu dituen arren, hiri barneko joan-etorrien % 20 ibilgailu pribatua egiten da.

Pertsonen mugikortasuna EAEn garraio bideen arabera




5. Aldaketa demografiko sakonak

Bizi-itxaropenaren igoerak eta jaiotza-tasen beherakadak aldaketa sakona eragin dute gure gizartearen egiturari. Aldaketa honek aukerak eta poztasunak sortzen ditu (bizimodu asean lutzeko aukera ematen du, aisia eta kontsumo ohitura berriekin), baita osasun eta gizarte zerbitzuen ereduak eta bere finantzaketa berrikusteko beharra ere. Baina desorekak ere eragiten ditu belaunaldiaren arteko erreleboetan eta honek immigrazioaren beharra adierazi dezake.

Bizi-itxaropenaren igoera, jaiotza-tasen beherakadarekin batera, herrialde garatu guztietan gertatzen den fenomeno bikoitza da eta Euskal Autonomia Erkidegoan asko areagotu da.

Bizi-itxaropena lutzetarako ondasun eta zerbitzu berriak ekoizteko aukera berriak eskaintzen ditu gero eta zabalagoa den gizarte talde batentzat baina, era berean, mendeko taldeen tamaina eta beharrak handitzen ditu eta osasun sistemaren erabiltzaileen tipologia nagusia aldatzen du. Honek gizarte eta osasun zerbitzuen kostuak handitzea ez ezik, biztanleria aktiboaren ekarpenen eta pentsiodunen gastuen arteko erlazio aldaketa eragiten du.



Bizi-itxaropena luzatzeak zahartze aktiboa bermatzeko beharra planteatzen du, gizartearen beharrei erantzuten dieten baliabide, ahalmenak eta irtenbideak ahalbidetzeko. Izan ere, baliteke administrazio publikoa ez izatea behar hauei erantzungo dion bakarra.

Jaiotzak kontrolatzeko ahalmenaren eta emakumeak bete-betean lan merkatuan sartzearen ondorioz, haien lehentasunak eta beharrak aldatu baitira, XX. mendeko azken laurdenean jaiotze-tasa azkar jaitsi da. Horregatik, Euskadiko ugalkortasun-tasa biztanleriari eusteko beharko litzatekeena baino baxuagoa da, baita sozialki eta ekonomikoki aurreratuagotzat jotzen diren gizarteetako (hala nola: Eskandinaviakoak) baino txikiagoa ere. Jaiotze-tasa baxuak arazoak eragiten ditu biztanleria aktiboa berritzeko eta karga sozialak eta pasiboak finantzatzerako orduan eta, behar bada, immigrazio handiagoarekin orekatu beharko da.

Gizartearen antolaketaren ikuspuntutik, familien kargen banaketaren emaitza ere izan daiteke, amatasuna/aitatasuna zail egiten baita gaurko lan merkatuak eskatzen duena ikusita, eta desbideratze hau konpontzeko lana eta familia bateragarri egiteko neurriak ezartzea komeni da.


6. Belaunaldien arteko errelebo desorekatua

Lan merkatuaren egiturak eta arauketak, hezkuntza sistemaren egokitzapen ezak lan merkatuek eskatzen duten trebakuntza emateko eta gazteriaren emantzipazioa oztopatzen duten zailtasunek gazteen frustrazioa eta atsekabea sorrarazten dituzte. Talentuak kanpora joateko arriskua dago edo talentuak garatzeko baldintzak ez ematekoa.

Egungo egoeraren alde batera utzita, **gazteak lan merkatura modu egokian sartzea** eta beren autonomia ekonomikoa eta soziala garatzea geroz eta zailagoa egiten zaie.

Biztanleriaren piramidea estutzeak lan merkatura sartzea erraztu beharko lukeela badirudi ere, lan merkatuak ez dizkie garapen profesionalerako aukera argiak eskaintzen belaunaldi berriei, nahiz eta gure historian gazteek inoiz izan duten maila profesional altuena daukaten. Gazteek beste herrialdeetara jo dezakete lan bila eta atzerrian esperientzia lortu duten gazte trebatu horiek itzultzeko baldintzarik ez badago, talentuak galtzeko berehalako arriskua dago.

Langabezia tasaren eboluzioa adin tarteen



Prekarietatea eta azpiokupazioa lan merkatuaren bi akats nabarmen dira eta frustrazioa sortzen dute. Lehen, arautzearekin lotuta dago. Bigarrena, berriz, irakaskuntza sistema lan merkatuaren eskakizunetara egokitzearekin. Prekarietate horrek eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak bizitza autonomo bat izatea mugatzen

diete gazteei, eta gurasoen etxean bizitzen jarraitzen dute beste gizarte aurreratu batzuetan baino denbora luzeagoan. Horren guztiaren ondorioz, sortze berritzea, berrikuntza, ekimena eta mugikortasuna murriztu edo mugatu daitezke.

7. Aldatzen ari den balioen sistemaren hauskortasuna


Euskadiko gizarteak, inguruko gizarteek bezala, aldaketa nabarmenak izan ditu balio sistemari dagokionez. «Gure izaera»ri tradizioz lotutako balioak gizarte konplexuago batean disolbatu dira, eta Europako gizarte aurreratuagoetako balioak nabarmen zabaldu eta errotu dira: genero berdintasuna, laikotasuna, ezberdintasunetikiko tolerantzia edota garapen ekonomiko eta sozial jasangarriarekiko kontzientzia. Terrorismoaren iraupenak kalte larria eragin dio euskal herritarren bilakaerari kolektibo moduan. Hala, gizarte harremanen, ekonomiaren, aurrerapen kulturalaren eta hizkuntzaren garapena saihestu du; gure arteko bizikidetasuna, finean. Sorkuntza berria, berrikuntza eta beste proiektu batzuei heltzeko ekimena balio aldakorrez eta gurutzatzen diren eragin konplexuz osatutako egoera batean gauzatu behar dira.

Aldaketa profesionaleri eta mugikortasun sozial eta geografikoaren modu berriei etengabe egokitu beharrak lan bizitza osoan gaitasun teknologiko eta sozial berriak ikasi beharra ekarri du. Hezkuntza sistema funtsezkoa da curriculumaren diseinuan berrikuntza, sormena, ekiteko gaitasuna, lankidetzeta, lidergoa eta antzeko balioak indartzeko.

Aurreko hamarkadetan lortutako arrakasta materialak arriskua ere badu; alegia, loak hartzeko eta gizarte honi forma eman dion balio multzoa galtzeko arriskua. Ondoko balioez ari gara, zehazki: adostasun etikoan oinarritutako ekimen espirituaz, elkartasunaz, bidezko justiziaz eta lanean zintzo jokatzaz. Arazo berriei aurre egiteko ahalmen txikiagoa dugu balio sistema tradizionala aldatu denetik.

Ekoizpen eta balio sistemaren aldaketak, immigrazioaren hazkundearekin batera, sistema sozio-ekonomiko bikoitza sor dezake, eta ondorioz, gizarte kohesioa eta bakea arriskuan jar ditzaketen bazterketa fenomenoak sor daitezke.

Jarduera ekintzaile osoaren indizea: EAE eta Espainia, 2004-2009



Iturria: Orkestra, Global entrepreneurship monitor (GEM), EAE txosten exekutiboa 2009.

Aldatzen ari den eta kultura uniformizatzeko joera duen mundu honetan, euskal kultura eta euskara oso aktibo baliotsuak dira, eta euskal herritarren etorkizuna, talde ireki, berritu eta adostu gisa, ezinbesteko aukera eta erronka da. Batzen gaituzten alderdiei eta balioei buruzko oinarrizko adostasunak zabaltzeko aurrerapausoak egitea, ezberdintasunak, ondarea eta oroimen kolektiboa errespetatuta, bultzada bikaina da gizarte kohesioa eta demokraziaren garapena lortzeko.

8. Nazioarteko garapen desberdina


Nazio Batuek 2000. urtean 2015. urterako ezarritako milurteko helburuak lortzetik urrun gaude oraindik, herrialde askotan aurrerapenak egin diren arren. Hazkundearen, pobrezia-aren txikitzearen eta garapen jasangarriaren arteko mendekotasuna argi onartzea eskatzen dute helburuek, baita garatutako herrialdeek pobreen egoeran duten erantzukidetasuna ere. Aldeek eta pobreak planifikatu gabeko migrazioak eragiten dituzte eta migrazio hauek saihestu egin behar dira, herrialde atzeratuen garapena eta nazioarteko elkartasuna sustatuz.

Gaur egungo arazo global larrien eraginez –klima aldaketa, nazioarteko gatazka-maila gero eta handiagoa, finantza eta ekoizpen krisiak, migrazio behartuak, giza eskubideen urraketak, parte hartzeko eta erabakitze biderik eza, nortasun fundamentalisten indartzea)–, munduan elkarren artean estuki lotuta dauden hiru prozesu bateratzen dira: kalteberatasuna, desoreka eta pobrezia.

Kohesioa eta nazioarteko garapena sustatzeko aspaldiko erronka hura indarrean dago oraindik, bai desberdintasunak eta pobrezia gutxitzeko, bai geroz eta garestiagoak diren oinarriko elikagaiek eta urak eragindako nazioarteko gatazka desaktibatzeko, elkartasunagatik eta gure interesagatik. Izan ere, bizimoduaren alde onartezinek migrazio korranteak sorrarazten jarraituko dute eta, baldintza penagarrietan gainera.

Garapenerako nazioarteko aliantzak, nazioarteko topaketa askotan adierazitako konpromiso eta 8. milurteko helburuak, munduko herrialde txiroenen garapena herrialde garatuen erantzukizuna ere badela zuzenean aitortzea eskatzen du.

Garapenerako lankidetzak



Iturria: Garapen lankidetzarako Euskadiko agentzia

Euskal Autonomia Erkidegoa ere, bere ahalmen ekonomikoari dagokion neurrian, erantzukizun honen partaide da eta garapenerako laguntza bideratzen du, batez ere, Latinoamerikako herrialdeetara.

HURRENGO URRATSAK

Jasangarritasunaren giltzarriak Euskadin izeneko dokumentu honekin azterketa fasea amaitzen da eta fase berri bat hasten da EA Eren garapen jasangarria sustatu eta bermatu behar duen estrategia lantzeko helburuarekin. Aurreko fasean bezala, Batzorde Teknikoak, gainerako batzordeek eta talde parte-hartzaileek 2020ko EAE jasangarriaren **ikuspegiaren** eraikuntzan lan egingo dute. Horretan zehaztuko dira izan nahi duguna eta izan gaitzkeena, identifikatu ditugun gakoak kontuan hartuz.

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoa epe ertainean gizarte lehiakorra, kohesioa duena eta erantzukidea, 3. iraultza industrialari ekiteko gai dena (karbono urriko ekonomia) eta ekonomia ekoeraginkorraren, ikerketaren, berrikuntzaren eta jakinduriaren arloetan abangoardia izan daitekeen herrialdea izango da.



Ikuspegiak zenbait **helburu nagusi (helburu markoak)** lortzeko zeregina du, eta horiek lortzeko, dokumentu honetan aipatutako *gakoek* dakartzaten **ERRONKEI** erantzuteko lan egin beharko dugu.

Helburua, beraz, *herrialde proiektua* diseinatzea da, erreferentziazko hiru **helburu markorekin** egituraturako *hazkunde jasangarriaren eredu berri* baten inguruan:

- ✓ **Oparotasun ekonomikoa:** ekonomia berritzaile, lehiakor eta ekoeraginkorrerantz jotzea.
- ✓ **Berdintasuna eta kohesio soziala:** Kalitatezko enplegua eta hezkuntza, gizarte osasuntsu kohesionatua eta solidarioa sustatzea.
- ✓ **Ingurumenaren zaintza:** ingurumenaren kalitatea hobetzea, klima aldaketaren aurka borrokatzea eta gure biodibertsitatea babestea.